



Lehiaren Euskal Agintaritzak “Compliance gidaliburua” aurkeztu du, enpresei segurtasun juridiko handiagoa emateko

“Lehia Arloko Compliance Gidaliburuak”, lehia askearen kontrako jardunbideek enpresentzat dituzten arriskuak identifikatzen ditu

Gai horri buruz Estatu mailan argitaratzen den lehenengo Gidaliburua da, eta kontsulta publiko prozesu baten ondoren egin da

Jarraibideak ematen ditu, enpresek, lehiaren arautegiaren kontrako arau-haustek prebenitu ahal izan ditzaten, betetze programak eginez

Bilbon, 2019ko urriaren 31n / **“Lehia. Beste pauso bat arauak betetzeko kulturari” ekitaldian, Lehiaren Euskal Agintaritzak “Lehia arloko Compliance gidaliburua” aurkeztu du gaur. Helburua, lehiaren alorreko estatu eta Europa mailako arau egitura aplikatzeko orduan enpresei segurtasun juridiko handiagoa ematea da.**

Gidaliburuaren helburua lehia askearen aurkako jarduerak agerian uztea da, enpresa errealitatean ohikoenak direnak, batez ere. Era berean, lehia askearen aurkako jardunbideak enpresei eurei dakartzkien arriskuak identifikatzen dira, eta enpresek lehiaren araudiaren arau-haustek prebenitu ahal izan ditzaten jarraibideak eskaintzen dira; horretarako, betetze programak egiten dira, Compliance Officer figurak aplikatzen eta gainbegiratzen dituen barne protokoloak barne hartuta.

Ekitaldian hauek hartu dute parte: Pedro M^a Azpiazu, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Ekonomia Sailburuak; Asís Canales, IBERDROLA, S.A.-ko Finantza eta Baliabide, Erosketa eta Aseguru Zuzendariak; eta Gregorio Rojo, Eusko Ganberak erakundeko Presidenteak. Alba Urresola, Lehiaren Euskal Agintaritzako Presidenteak “Lehia arloko Compliance gidaliburua” aurkeztu du. Antonio Gomes, OCDEko Acting Deputy director for Financial and Enterprise Affairs-ak, “Lehia betetzeko kultura sustatuz” izeneko hitzaldiarekin hartu du parte. Horrez gain, Sylvia Enseñat ASCOMeko presidentek moderatu duen eta Antonio Unanue ORONA Korporazioko Zerbitzu Juridikoetako Zuzendariak, Sergio Loma RPK, S.Coop-eko Controllerrak eta Germán González Siemens Gamesako Etika eta Betetze Zuzendariak parte hartu duten mahai inguruan, enpresan Compliancea ezartzearen inguruko euren esperientziak azaldu dituzte.



Lehiaren defentsarako legeak debekatutako lehiaren kontrako jokaeretan parte hartzeak, ondorio ekonomiko negatibo garrantzitsuak ditu, eta horien eragina araua hausten duten enpresen eta zuzendaritza taldeko kideen gainean erortzen da: Lehiaren kontrolerako agintariek (EAEko kasuan Lehiaren Euskal Agintaritzak) ezartzen dituzten isunak, Administrazioarekin kontratatzekeo debekuak, eta lehiaren kontrako jardunbidea dela eta kaltetutakoei eragindako kalteen ondoriozko kalte-ordainak.

Euskadiko errealitateak erakusten digu oso gutxi direla euren kudeaketa sistemetan lehia integratuta duten enpresak. Gai hori betetze programetan ezartzea pizgarria da nazioarteko merkatuan jauzi koalitatiboa eman duten euskal enpresen lehiarako, izan ere, lehia joko arau gisa bermatzea erabat garrantzitsua da.

Gai horri buruz Estatu mailan argitaratzen den lehenengo Gidaliburua da, eta kontsulta publiko prozesua baten ondoren egin da.

“Lehia Arloko Compliance Gidaliburua” hemendik jaitsi daiteke: www.competencia.eus